



MIKEL BEGOÑA • KIKE INFAME
DANIEL GOJÉNOLA

ERMUA

binetetan

MERKURIOREN HEGO BIZKORRAK



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA

ERMUA HIRIKO UDALA

Apustuak betidanik izan dira Ermuan. Izan ere, Gipuzkoan debekatuta zeuden garaietan ere, jendea gure herrira etortzen zen apustueta aritzeko. Euskal kirol tradizioaren oinarrian lehia edo norgehiagoka eta joko-apustuak, gure kulturaren parte gisa sustraituta egon dira beti. Merkurio, jainkoen mezulari azkarra, abiaduraren jainkoa, gidari ezin hobea dugu apustu mundu honetan abiatzeko. Patxi Piperren xelebrekeri eta trikimailuen bitartez ezagutuko ditugu apustuen munduak dituen alde biak: alde ilun eta arriskutsuago bat, baina baita olgetak eta demak sortzen duten emozioz beteriko alde distiratsua ere. Patxi Piper bezalako pertsonaia bereziek istorioaren norabidea eraldatzeko gaitasuna dute. Galdu zein irabazi, bizipoza da hemen jokoan dagoen gauza bakarra.

ERMUA: ISTORIOEN UNIBERTSOA

Ermua istorioz eta pertsonaiez beteriko unibertsoa da, txikiak zein handiak, guztiak elkarrekin bertako historia osatzen dute. Komikiaren bidez, unibertso horretako une eta pasarte gogoangarriak kontatu daitezke. Narrazio bakoitza planeta baten eraginpean marrazturik dago, eta planeta guztiak elkarrekin, unibertso bakarra osatzen dute. Planeta horien izenak mitologia klasikoko jainkoetatik datoz, bakoitzak bere ezaugarriekin. Merkurioren kasuan, abiaduraren ikurra dugu.

Gozatu bidaia berezi honetaz denboran zehar, eta deskubritu gaur egun ezagutzen dugun Ermua osatu duten momentuen eta istorioen konstelazio ederra.

Argitaratutako aleak:

- Saturno Eskolanekua.
- 1794. Marte eroturik.
- Merkurioren hego bizkorrak.

Benetako gertakarietan oinarritutako komikia... irudimen pixka batekin.



MERKURIOREN HEGO BIZKORRAK

ERMUA, 1911.

MERKURIO EGUZKITIK
GERTUEN DAGOEN
PLANETA DA, SEME, ETA
GUZTIAK ARINENA...

AITA, ASKOTAN
ESAN DIZUT
ASTRONOMIAK
ASPERTU EGITEN
NAUELA...

ZIENTZIALARIEK BERE
ABIADURA 1.700.000
KM/ORDUTIK GORAKOA
DELA KALKULATU DUTE...

NIRI BOST
AXOLA, NI
PILOTARI
IZANGO NAIZ.

ETA MITOLOGIAK ZER?
HORREK ERE ENPAGUA
EMATEN DIZU?


ANTZINAKO
ERROMATARRAK ZIOTENEZ,
MERKURIO ZEN JAINKOEN
MEZULARIRIK
BIZKORRENA...

ETA HAREN ABIADURAREN SEKRETUA
HEGODUN SANDALIAK ZIRELA
ESATEN ZUTEN.

HONEK
ABARKETOKIN EZ
DOSKU INORK
IRABAZIKO!!



ZALANTZARIK GABE, ERMUKO
FRONTOIAN ANTOLATUTAKOIA
IZAN ZEN PILOTA PARTIDARIK
SONATUENA... ESTEBAN OSORO ETA
ANSELMO DIJUTOREN ARTEKOA.



...ETA BERARI BURURATUTAKO BESTE OSAGAI BATZUK ERE.

PATXI PIPERREK GATZA ETA
PIPERRA JARRI ZITUEN...




DIBERTSIOA ETA BIZIPOZA ...



ETA KAUTXUZKO AXPIXA
HONEKIN GORRIAGAK
ANTXITXIKETAN EZ... HEGAN
EHINGO DAU!!! AURKARIA
TOPAU BEHAR DOGU!!



BURRIN BURRIN



HANDIK NATOR, BAI... GAURKOA GURE BOSGARREN ETAPA DA... BAINA HEMENGO ERREPIDEAK EZ DIRA FRANTZIAKOAK BEZAIN ONAK...

ETA ALBOKO LAGUNA NOR DA?



NIRE PILOTUKIDEAK HELENE DU IZENA, BAINA PARISEN DENOK ESCARGOT DEITZEN DIOGU.

BONJOUR.



ZER? EMAKUMEAK ERE GIDARI?

BIEN SÛR! AUTO HAU DION BOUTON Q GHP BAT DA!

ZER? TRASTE HAU BADABIL ZALDI BARIK?





ETA BERRIAK ATEZ ATE SALTO EGIN
ZUEN, KALEZ KALE, BASERRIZ BASERRI,
HARANEZ HARAN...

... ETA HORRELA
HELDU ZEN...



...EGUN HANDIA.



AUPA GORRIAGA!!

AUPA!!



CHAFFEURRA EZ
DA ETORRI?

BART EIBARRERA
LAGUN BATZUEKIN JOAN
ETA ORAINOKI EZ DA
IRITSI; NEUK GIDATUKO
DUT BERE ORDEZ...

GANORA GITXI
IKUSTEN DOT
HEMEN...

ORDUAN, BERROGEI
OBERLEKO ETA IA
NOR HELTZEN DAN
LEHENENGO AITXIXO
GANAKO ERMITARA
...



BAT, BI ETA...





FLASH





BERTSIO HORREN ARABERA, "NORBAITEK" LABATIBASO FAMATUA ERABILI ZUEN PROBA IRABAZTEKO.



HAGO ISILIK, AHOZABAL HORI!

